

Liburuaren Eguna ospatuko da Azpeitian ere astearte honetan

Udalak eta udal liburutegiak bat egin dute horretarako

Liburuaren Nazioarteko Eguna dela eta, asteartean, apirilak 23, hainbat zerbitzu eskainiko dira herrian. Udalak eta Udal Liburutegiak elkarlanean liburuak eskainiko dituzte eta bide batez, liburutegiko funtzionamendua eta eskaintzak azalduko dizkiete herritarrei. Bestalde, Udalak argitaratu dituen liburuak salgai jarriko dira udaletxeko arkupetan. Goizeko 10etatik 13:00etara bitartean interesatuek hainbat ale prezio sinboliko batean eskuratzeko aukera izango dute. Liburu bakoitza 5eurotan salduko da.

Tartean 700. urteurrena ospatzeko argitaratutako liburuak ere salmentan egongo dira. Bakarka erosiz gero 5 euro balioko du liburu bakoitzak eta bilduma osoa erosiz gero, 20 euroko prezioan eskainiko da. Haurrentzat argitaratutako ipuin bilduma ere eskainiko da, 5 euroren trukean.

Udaleko arduradunen ekimenez gain, herriko ikastetxeetan ere Liburuaren Eguneko ospakizunak egingo dituzte. «Urte guztian haurren irakurzaletasuna bultzatzeko egiten dugun lanari zukua atera eta egun hau aprobetxatu nahi izan dugu umeei liburuez gozatzeko beste aukera bat emateko ikastetxean bertan», azaldu dute Iraurgitik.